

azpeitian zer?

123. zenbakia

udal aldizkaria

2009ko abendua



Behar dutenei
laguntzen

Udalak azken hiru urteetan
lagundukotako elkartasun proiektuekin
erakusketa jarri da martxan

ale honetan

zer?



- 3 Inkesta
- 10 Gabonetako argi berriak
- 4 Herritarren eskaerei erantzunez
- 11 Jesusen alabei agur
- 5 Uriaren hilketaren urtemuga
- 12 Motxean
- 6 Emakumeen kontrako indarkeria
- 14 Euskararen ordenantza berriak
- 8 Erreportajea
- 15 Gabon giro

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
 Egilea: Prentsa bulegoa
 Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
 Ale kopurua: 7.000
 L.G: SS - 1148/91

Paper birziklatuan egina 



telefono interesgarriak

Azpeitiko Udala

Zentralita	943 15 72 00	Udal Euskaltegia	943 81 19 47	Bailarako Nekazari	
Alkatetza	943 15 71 85	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75	bulegoa	943 81 24 85
Idazkaritza	943 15 71 98	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83	Enplegu Bulegoa	943 15 03 00
Kontuhartzaitza	943 15 71 89	Ingurugiro Etxea		1. Epaitegia	943 02 51 91
Hirigintza	943 15 71 91	Fundazioa	943 15 17 13	2. Epaitegia	943 02 51 92
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70	Erregistro Zibila	943 02 51 99
Kultura	943 15 70 68	Kontsumitzaileen		DYA	943 46 46 22
Komunikazioa	943 15 79 82	Informaziorako Bulegoa	943 15 71 93	Gurutze Gorria	943 85 32 97
Kirolak	943 15 00 95	N.A.N. Bulegoa	943 15 71 60	S.O.S. Deiak	112
Parekidetasuna	943 15 79 28	Baigera I	943 81 51 71	Taxiak	943 81 13 07
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Baigera II	943 81 23 89	Urkome	943 81 65 00
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Ingurugiro Etxea			
Zapo Txoko	943 15 71 61	Museoa	943 81 24 48		
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60				
Eguneko Zentroa	943 15 74 96			Sexologia zerbitzua	943 15 10 30
Liburutegia	943 15 71 95			Etxebizitza bulegoa	943 81 66 99
Udaltzainak	943 15 13 13	Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74	Astearte eta ostegunetan	
Suhiltzaileak	112	AL-ANON Alkoholikoen		18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan	
Igerilekua	943 81 41 21	Sendiak	943 47 54 03	12:00etatik 14:00etara.	
Polikiroldegia	943 81 30 69	Trenaren Museoa	943 15 06 77	Baserritarren produktuen	
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Anbulategia	943 02 54 00	merkaturatze bulegoa	943 15 10 29
Euskara Patronatua	943 81 45 18	Larrialdiak	943 02 54 01	Astearteetan 10:00etatik 13:30era eta	
		Ertzaintza (Azkoitia)	943 08 37 80	ostegunetan 16:00etatik 19:30era.	

inkesta zer dio kaleak?



Zer eskatzen diozu 2010ari Azpeitirako?



Ekaitz Martinez

“Egia esan, gauza asko eskatuko nizkioke iristear dagoen 2010ari, baina guztiak hemen zerrendatzea luzeegia izango denez, beste modu batera egingo dut. Nik eskatuko nituzkenak Benito Lertxundi abeslariaren “zenbat gera...” abestiak ondo laburbiltzen ditu eta horretxen hitzak eskatuko dizkiot urte berriari: “Gure asmoak, esperantza, herria, askatasuna, justizia, bakea, egia, maitasuna...”.



Olatz Uranga

“Urte berriari osasuna, zoriontasuna eta pakea eskatuko nizkioke, urtero legez, baina topikoetan erori gabe, gauza konkretuak ere eskatuko dizkiot. Azpeitirako, adibidez, kirol azpiegiturak merkeago izatea nahiko nuke. Izan ere, herriko igerilekua eta kiroldegia zaharkituta daude, eta instalazio berriak dituzten herrien adina ordaintzen dugu. Zarautzen, esaterako, berri-berriak dituzte azpiegiturak, eta guk hangoen tankeran ordaintzen dugu”.



Alaitz Aguado

“Amaitzeaz dagoen urte honetan bereziki igarri dugu krisiaren eragina Azpeitian, eta langabezian edo erregulazio espedientepean gelditu dira langile asko. 2010 urte berria herritar horientzat hobe izatea eskatuko nuke nik, lanik gabe gelditu direnek lana aurkitzea, eta bizimodua zaildu zaien guztiei erraztea. Horrez gain, herriko gatazkak konpontzea ere nahiko nuke, bakea lortzea, eta merezi duten guztiak zoriontsu izatea”.



Mailo Oiartzabal

“Urrestildarra naizen aldetik, datorren urtean martxan jarriko den haurtzaindegia bide honetik abiatzea eskatuko nioke. Urrestillarentzat proiektu ederra da, eta gustatuko litzaidake garai bateko haur eskolak izandako indarra lortzea, horrek bizia emango bailioke Urrestillari. Horrez gain, Urrestillari dagozkion gaitan urrestildarrak kontuan hartzea ere eskatuko nuke, eta beno, zoriontasuna, bakea, osasuna eta lana ere bai”.

Herriarren eskaerei erantzunez...

Udalak jarritako buzoietan eta *azpeitia.net* webgunean jasotako iradokizun, proposamen, eta kexei apurka-apurka erantzuten ari da Azpeitiko Udala. Hona hemen horren adibide batzuk.

Iradozkizuna

Nuarben papera birziklatzeko ontzia falta dugu. Urrestilarra jaitsi behar izaten dugu papera botatzera. Gainera, zabor normala jasotzera ere oso noizean behin etortzen dira, eta edukiontziak beteta egoten dira.

Erantzuna

Jarri ditugu edukiontziak jada, eta espero dugu horrekin arazoa konponduta izatea. *lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.*

Iradozkizuna

Enparan kalea peatonalizatzeko, noizko Enparan dorretxeko poste mekaniko edo pneumatikoak?

Erantzuna

Postea iritsi da jada, eta ezartzea soilik falta da. Oso laster jarriko dute. *lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.*

Iradozkizuna

Azoka plazak gutxienez igogailu bat beharko luke.

Erantzuna

Azoka plaza nola eraberritu aztertzen ari da Udala, ahalik eta irtenbide egokiena emateko. Zure proposamena ere kontuan hartuko dugu. *lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.*

Iradozkizuna

Euskal Herriako bidegorriari barandilla edo zuhaitz bat jarri beharko litzaioke, errepideari oso lotuta baitago, eta arriskuak ekiditeko.

Erantzuna

Bidegorrien kontuan, zuhaitz edo posteak jarri baino, heritarrok kontzientzia hartu behar dugula iruditzen zait. Autoan doazenek, bizikletaz dabilzanek, eta oinezkoek elkarrenganako errespetuz jokatu eta trafikoa guztiak kontuan hartuta antolatu behar dugu, elkar errespetatuz eta arriskuak saihestuz. *lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.*

Iradozkizuna

Kiroldedia eta liburutegia igandeetan ere zabaldu beharko litzukete.
Jose Ramon Arregi

Erantzuna

Saiatzen gara ahalik eta eskaintza zabalena ematen. Igerilekuko ordutegia zabaldu dugu, eta besteetakoa ere hobetuko dugu. Hori egiteko, ordea, ondo antolatu behar dira gauzak, eta hori nola egin aztertzen ari gara. *lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.*

Iradozkizuna

Ezin daiteke gehiagotan garbitu Betharrameko frontoiak. Aspaldian han jolasten duten umeak arkakusoz beteta bukatzen dute.
Lourdes Urbiet

Erantzuna

Betharrameko frontoia egunero-egunero garbitzen da, eta hortaz, hamitzen zait arkakusok bertan egotea. Gune horren garbitasuna egunero bermatzen dugu. *lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.*

Iradozkizuna

Karakoletik hasi eta Arana kalera dauden barandilla horiek noiz pintatu behar dituzue? Zikinak eta herdoilak janda daude. Hainbeste jende lanik gabe eta horiek horrela edukitzea ez zait egokia iruditzen.
Miren

Erantzuna



Gune hori 2010ean txukuntzea aurreikusten dugu. *lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.*

Iradozkizuna

Landeta auzoan bidea zeharkatzeko ez dago leku egokirik. Zebra bide bat oso beharrezkoa dela uste dut, autoak abiadura handiz pasatzen baitira bertatik. Zebra bide hau, Lan Mobel aurrean edo Borda-txo aurrean jarri beharko litzateke.
Maria Lazkano

Erantzuna

Bat gatoz, eta zebra bide bat jartzeko beharrezko tramiteak martxan jarriko ditugu. *lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.*



www.azpeitia.net

Sartu zaitetz **www.azpeitia.net** udal webgunean

- Tramiteak eta ordainketak etxetik egiteko modua eskaintzen dizu.
- Udal albisteak uneoro ezagutzeko.
- Zure kexa, iritzi eta iradokizunak plazaratzeko.
- Plenoetako aktak, udal ordenantzak, hiri antolamenduen plan orokorra eta beste hainbat dokumentu ofizial kontsultatzeko.

- Herriaren inguruko informazio erabilgarria eskuratzeko, ekitaldien agenda eta guzti.

Eta gainera:

- Sexologia zerbitzua on-line: hileko azken ostiralero sexologoak zuen kezka on-line erantzungo ditu.
- Udal liburutegia: bertako katalogora on-line sartzeko aukera eskaintzen dizu udal webguneak.

www.azpeitia.net. Udala zure eskura, klik batean.

ETAri desagertzeko eskatu dio alkateak, Uriaren erahilketaren urteurrenean

Abenduaren 3an egindako ekitaldietan parte hartu dute Udal Gobernuko ordezkariak



Inaxio Uriaren seme-alabak, adierazpena irakurtzen

abenduaren 3an urtea bete zen ETAK Inaxio Uria hil zuenetik, eta urtemuga horren harira elkarretaratzea egin zen Loiolan, Uria zenaren familiak deituta. Ordezkari politiko eta herritar ugari izan zen bertan Uria sendiari elkartasuna adierazten, tartean Azpeitiko Udal Gobernuko kideak.

Uria zenaren seme Josuk eta alaba Jaionek Uria familiaren izenean hitz egin zuten ekitaldian. Beraien bizitza “betiko suntsitu” zuten egunetik urtebete igaro dela adierazi zuten, eta “egunero” ari direla “jasaten ETArek tortura”. ETAri argi esan zioten Euskal Herriak ez duela behar, eta beste inor ez hiltzeko exijitu zioten.

Horrez gain, mezu bana helarazi zioten “ETAren ekintza armatua oraindik ere kondenatzeko gai izan ez den Ezker Abertzalearen zati horri” eta euskal gizarte osoari. Erakunde armatuaren hilketak gaitzesten ez dituztenei horrela zuzendu zitzaion Uria familia: “Zuen eskubideak aldarrikatzen dituzue, baina zergatik ez dituzue ETArek hilketak gaitzesten? Bizitza eskubidea ez al da oinarritzko giza eskubidea?”. Euskal gizarteari, berriaz, “ETA bezalako birus hiltzailearen aurrean ez dadila inunizatu” eskatu zioten.

Adierazpena irakurri ostean urtebete honetan hilerok egin dituzten elkarretaratzeen dinamika amaitutzat eman zuen Uriaren sendiak.

egun horretan bertan, arratsaldean, adierazpen instituzionala egin zuen Julian Eizmendi alkateak, ETAri desagertzeko eskatuz. Hona jarraian alkatearen adierazpena, osorik:

“Gaur urtebete Inaxio Uria azpeitiarra, gizon ona, herrikoia eta langilea, erahil zuen ETAK.

Amesten dugun Herrian ez du lekurik inposaketak, askatasunak baizik. Ez du lekurik beldurrak, itxaropenak baizik.

ETAren indarkeriazko ekintzek, edo mehatxuek, oinarri-oinarritzko giza-eskubideak urratu, Euskal gizartearen

egiazko borondatea mespretxatu, eta sufrimendua zabaldu besterik ez dute egiten.

Bizitzaren esperientzian familiako baten heriotza gainditzea izango da gogorrenetarikoa. Are gehiago, orain urtebetezko bezala denean, bat-batean, beste pertsona batek, ez dakit zeren izenean. Zergatik? Zertarako?... Justifikaziorik ez duten ekintzak. Gehien sufritzen dutenekin egon behar dugu, gure babesa eta elkartasuna sentitu dezaten.

Gure Herriak, Euskal Herriak, badu heldutasuna zer nahi duen jakin eta bideratzeko.

Gure Herriak, Euskal Herriak, bere etorkizuna, gu guztion oinarritzko eskubideen errespetuan eraiki nahi du, salbuespenik gabe, bizitzarenetik hasita, eta herritarren gehiengoaren nahiaren errespetuan.

Noiz arte hainbeste sufrimendu? ETA soberan dago, ETAK desagertu egin behar du. ETAK ez du Herri honen baitan lekurik. Indarkeria eta politika bateraezinak dira, bide paketsu eta demokratikoak soilik erabili behar dira.

Printzipio hau denok asumitu beharra daukagu, horrela etorriko da bakea, eta horrela izan dadin jarraituko dugu lanean”.

Emakumeen kontrako indarkeriari behar bezala erantzuteko

Protokolo bat lantzen hasiko da Parekidetasun Saila, urte berria estreintatu bezain pronto



azaroaren 25a emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna izan da. Emakumeenganako indarkeria gaur egungo arazo sozio-politiko nagusia dela jakinda, Azpeitiko Udalak hainbat ekimen antolatu ditu egun horren testuinguruan: hitzaldiak, puntu morea zabaltzeko kanpaina... Horrez gain, udalak aho batez adierazpen

instituzional bat ere onartu zuen, eta bertan hezkidetzaren proiektuaren bidez prebentzio lanean jarraitzeko konpromiso berresteaz gain, indarkeriari aurre egiteko Udal protokolo bat martxan jartzea onartu zen. Protokolo horren nondik norakoak azaldu ditu Edurne Aranbarri Parekidetasun Saileko teknikariak:

• Zer izango da, zehazki, protokolo hori?

Protokoloa indarkeria jasan duten emakumeei arreta eraginkor eta azkarra emateko neurri multzo bat da. Kontutan hartu behar dugun lehen gauza protokoloa eremu asistentzialean kokatzen dela da, hau da behin emakumeak erasoak jasan duenerako neurrietaz ari garela. Indarkeria jasan duen emakumeak gaur egun zerbitzu ezberdinetara jo behar izaten du laguntza eske: osasun zerbitzuetara, polizia-eremura, epaitegietara, abokatuengana, udaleko gizarte zerbitzuetara, e.a. Bakoitzak bere aldetik bere lan egiten du, baina ez era koordinatu batean, eta honek asko zailtzen du arreta egoki eta berehalakoa ematea, askotan emakumeengan etsipen sentimendua eraginez. Protokolo honen helburua zerbitzu guzti horiek era koordinatuan lan egiten hastea izango da, bertan parte hartzen duten langileei formazioa eskainiz eta eman beharreko arreta eraginkortuz.

• Gaur egun egiten den modua zertan hobetuko du?

Alde batetik, zerbitzu beraiek eraginkortzea ekarriko du, prozesu guztia

azkartzea, finean edozein indarkeria sexista mota pairatu duen emakumeei behar duten moduko arreta eskaintzea. Izan ere indarkeria mota ezberdinak egoteak, arreta kasu bakoitzean ere desberdina izatea eskatzen du. Bestalde zerbitzuak herriko emakumeengana hurbildu beharko dira, dauden zerbitzuei buruzko informazioa zabalduz, eta emakumeek kasu bakoitzean hartu ditzaketen erabakiak errespetatuz. Argi utzi nahi dugu orain arte egiten den lana ez dugula zalantzan jartzen, baina era dispersatuta egiteak asko zailtzen die erasotutako emakumeei bidea. Gaur egungo zerbitzu asistentzialek gainera emakumea gehiago biktimizatzen dute hitzik edukitzeko eskubiderik ez duen subjektu batean bihurtuz, eta horrek ezinbestean aldatu egin behar duela uste dugu guk. Beraz hasiera batean beharrezkoa izango da Azpeitiko emakumeei eskaintzen zaizkien zerbitzu nolakoak diren, nola funtzionatzen duten eta zein hutsune dituzten aztertzea, ondoren neurri eraginkorrak martxan jartzeko.

• Inguruko herrietan bada gisa horretako tresnarik?

Urola eskualdeko herrietan ez dute

protokolorik martxan. Badira ordea Euskal Herrian beste hainbat herri, gisa honetako protokoloak lantzen dituztenak eta oso emaitza onak ari dira jasotzen, adibidez Arrasaten.

• Noizko egon da martxan?

2010ean hasiko gara lantzen eta 2011ean martxan egotea espero dugu.

• Emakumeenganako indarkeriarekin amaitzeko tresna eraginkorrak direla uste al duzu?

Aipatu dudan moduan behin indarkeria egoera eman ondorengo neurriez ari gara eta beraz ez dira protokoloa indarkeriarekin amaitzeko martxan jarri beharreko neurri bakarrik. Emakumeenganako indarkeria gaur egungo gizarte patriarkalak inposatzen dituen botere harremanen ondorio garbia dira eta beraz botere harreman hauek dira eraldatu beharrekoak. Prebentzio lanak ezinbesteko papera jokatzeko du ildo honetan eta ikastetxeetan martxan ditugun hezkidetzaren programekin jarraitzea beharrezkoa da. Bestalde herriarrok emakumeenganako indarkeriaren aurka gaudela ozen esatea ere garrantzitsua da.

Konpromisoa, hitzetatik haratago

Azpetiko Udala Gipuzkoako Jabetze Eskolen sarean sartuko da 2010ean.



Jabetze Eskolen bidez emakumeen parte hartzea sustatu nahi da

hitzak baino gehiago egin nahi ditu Azpeitiko Udalak berdintasunaren bidean. Horregatik, Gipuzkoako Jabetze Eskolen sarean sartuko da datorren urtean. Hernani, Eibar eta Arrasatek osatzen dute, egun, sare hori, eta bertako kide izateko prozesua luzea izan da. Parekidetasun Sailean “oso gustura” daude Gipuzkoak sarean onartuak izan direlako, duela urte eta erdi hasi baitzuten bertaratzeko prozesua.



Urtarrilaren 16an egingo da eskolen aurkezpena.

Emakumeen topaleku, prestakuntza eta hausnarketarako guneak dira Jabetze Eskolak. Emakumeen parte hartze sozio politikoa indartzea helburu dutenak, eremu publikoan duten parte hartzea alegia. Jabetze Eskolaren bidez parte hartze hori sustatu nahi da eta horretarako hainbat gai landuko dira eskainiko diren ikastaro mota ezberdinen bitartez. Emakumeok elkarrengandik ikasteko, emakumeen arteko harremanak indartzeko, sareak eratze, emakumeok ekarpenak berreskuratu eta baloratzeko, parekidetasuna aldarrikatzeko, pertsonalki eta kolektiboki indartzeko... Horretarako gunea izan nahi du Jabetze Eskolak.

“Berdintasun formalaren garaiotan oztopo eta muga asko ditugu oraindik emakumeok eremu publikoan parte hartzeko eta bertan eragiteko”

Izan ere, emakumeek badute zertaz jabetu: “Berdintasun formalaren garaiotan oztopo eta muga asko ditugu oraindik emakumeok eremu publikoan parte hartzeko eta bertan eragiteko, eta muga horietaz jabetu behar dugu emakumeok, hauek identifikatu, ondoren gainditu ahal izateko”, hala azaldu du Edurne Aranbarri Parekidetasun Saileko teknikariak. Norabide horretan pausoak emateko ikastaro mota ezberdinak antolatuko dira, jendaurrean hitz egiteko teknikak, autodefentsa feminista, sexualitatea, autoestima, emakumeak euskal kulturaren eta gizartearen, emakumeentzat antzerki tailerra, e.a.

Eskola 2010ean abiatuko da, eta urtarilean 16an egingo da aurkezpen ofiziala, jaialdi batekin. Informazioa etxe guztietara banatuko da, baina gehiago jakin nahi duenak Parekidetasun Sailera deitu besterik ez du izango: 943 157928.

Gehien behar dutenentzat

Erakusketa egingo da Mixio Taldearen lokalean Udalak garapen bidean diren herrialdeei laguntzeko babestu dituen proiektuak ezagutarazteko



Afrikan 14 proiektu babestu ditu Azpeitiko Udalak.

Krisi garaian norbere poltsikoak kezkatzen gaituen honetan, geure-koikeria aldea batera utzi eta behartsunei begira jarri nahi baita Udalak eta Zaparraie elkarteak. Horretarako, garapen bidean dauden munduko hainbat txoko-

tan lagundutako proiektuekin erakusketa jarri dute abian, Udalak azken hiru urtetan babestu dituen proiektu ezberdinak ezagutarazteko. Afrika, eta Hego Amerikako proiektuak dira, ikastetxe, tailer, nekazaritza, hezkuntza eta bestelako proiektuak

laguntzeko. Erakusketa Misio Taldearen lokalean egongo da ikusgai Gabon garaian, eta bertan proiektu ezberdinen inguruko argazki eta informazioa egongo da ikusgai. Proiektu horietatik batzuk jaso ditu Azpetia Zer?ek honako orrietan.

Datu orokorrak

32

proiektu
lagundu ditu
Udalak azken
hiru urtean

Urtezka sailkatuta	Kontinentezka	Proiektuak herrialdeka
2007: 9	14 afrikakoak	Sahara 6
2008: 12	16 amerika	Venezuela 5
2009: 11	2 asia	Bolivia 4
		Salvador 3
		Ecuador 2
		Swalandia 2

Udalak 2009 urtean diruz lagundutako proiektuak



Sahara

- **Proiektua:** V. Jakien caravana.
- **Udalak emandako dirua:** 5.610€

Camerun

- **Proiektua:** Aurreko urteko proiektuaren jarraipena: elektrizitatea eta arotz tailerretarako eskola.
- **Udalak emandako dirua:** 9.350€

India

- **Proiektua:** Herrian larrialdeko pobrezia aurre egiteko, nekazaritza eta abeltzaintza bidez lan bateratua. 24 bufalak eta 24 behi.
- **Udalak emandako dirua:** 13.263€



Rwanda

- **Proiektua:** Garapen poloan baliabiderik gabeko familientzako 4 etxeko eraikitzea.
- **Udalak emandako dirua:** 8.303€

Ecuador

- **Proiektua:** Lehengo urteko planaren jarraipena. 6 gela eraiki ikasketak luzatzeko 8.9.10.kurtsoetan.
- **Udalak emandako dirua:** 13.166€



Venezuela

- **Proiektua:** Programa. Eskolako errendimenduan hutsuneak dituzten haur eta nerabeentzako laguntza, beren gizarte-heziketa integrala hobetzeko.
- **Udalak emandako dirua:** 1.900€

Sahara

- **Proiektua:** Eskoletan, gelak txukundu, argi-indarra eta ordenadoreen instalakuntza ordenagailuak eta ikastaroa.
- **Udalak emandako dirua:** 4.675€

Venezuela

- **Proiektua:** Komunitate indijenetako gazteen hezkuntza garapena.
- **Udalak emandako dirua:** 3.740€

Salvador

- **Proiektua:** Aurreko urteko proiektuaren jarraipena "Fortalecimiento de centro municipal desarrollo infantil".
- **Udalak emandako dirua:** 13.730€


Salvador

- **Proiektua:** Kartzelan daudenentzat okindegia.
- **Udalak emandako dirua:** 14.025€



Argi berria izango dute aurtengo Gabonek

Kontsumo gutxiko lanparak errentan hartu ditu Azpeitiko Udalak



LED teknologiadun mikrobonbilak dituzte argi berriek.

argi berriak estreinatu Udalak aurtengo Eguberrietan. Diseinu berriko argazkiak dira, minbrezkoak, eta LED teknologiadun mikrobonbilak dituzte. Orain arte erabiltzen ziren argiak erretiratu eta berriak errentan hartzea erabaki du Udalak, segurtasuna bermatzeaz gain, ekonomikoki hobeto ateratzen delako, itxura gaurkotuagoa ematen dutelako, eta energia gutxiago kontsumitzen dutelako.

Azpeitiko Udalak 90. hamarkadan 45 Gabonetako argi erosi zituen, 15 eta 7 watioko bonbilekin egindakoak. Orduz geroztik argi horiek erabili dira Alde Zaharrean, Bustinzuriko Errebalean, Aranan eta Jose Artetxe kaleetan. Horiez aparte, Urrestilla eta Sanjuandegirako beste 25 argi alkilatatu izan dira, 2007ra arte, baina azken bi urteetan, argi horiek ez dira errentan hartu: Alde Zaharrean heren bat gutxiago jarri dira, eta sobratzen zirenak jartzen ziren Urrestilla eta Sanjuandegira.

Azpeitiko Udalaren argi horiek zahar-

tuta daude, ordea, eta teknikoek ez erabiltzea gomendatu diote Udalari: bai segurtasun elektrikoagatik, eta baita bonbilak konpondu edo berriak erostea kostatzen den dirua kopuruagatik ere. Gainera, kontsumitzen duten energia gehiegizkoa da.

Hori kontuan hartuta, argi zaharrak alde batera utzi eta berriak errentan hartzea erabaki du Udalak. Izan ere, argiak errentan hartzeak abantaila ugari dituela uste du:

- **Abantaila ekonomiko eta ekologikoak:** Batetik, argindarretan gutxiago gastatuko da. Argi zaharrekin, azken bi urteetan, 3.200 euro inguru gastatu zen energiatan; berriekin, berriz, 229 euro gastatuko dira.

Horrez gain, urtetik urtera argiak egokitu eta konpontzen gastatzen zen dirua ere aurreztuko da: iaz, esaterako, 3.200 euro inguru kostatu zen, eta errentan hartuta ez da betere kostatuko. Argiak jarrita dauden bitartean bonbilak berritzen ere ez da dirurik gastatuko, eta lehen 7.200 euro inguru gastatzen ziren. Lanpara be-

rriak erosi beharrik ere ez dago, eta horrekin beste 1.000 euro aurreztuko dira. Argi berri guztiak alkilatzea 17.685 euko kostatuko zaio Udalari, baina ordainetan 3.000 euro aurreztuko dira kontsumoan, eta 9.000 euro berritze, aldaketa eta mantenu lanetan. Hortaz, berez 5.685 euro kostatuko dira aurtengo gabonetako argiak.

- **Irudiari dagokionez, berriz, itxura gaurkotuagoa** izango dute Gabonetako argiek hemendik aurrera, eta ez zahar-kitua. Gainera, alokatuta izanda, urtero aldatzeko modua izango da.

- **Aldatzeko aukera:** alokatuak izanda, urtetik urtera aldatu eta hobetzeko modua izango da. Zerbait gustatzen ez bada edo hobetzeko modua dagoela ikusten bada, hurrengo urtean hobetzeko modua izango da.

Abenduaren 13az geroztik piztuta daude argiak, eta Errege egunera arte argiztatuko dituzte herriko kaleak, Gabonetako giro bereziari euren ekarpena eginez.

Agur eta eskerrik asko

87 urtean Azpeitian egindako lana eskertu diete herritarrek eta Udalak mojei



Enparan kaleko eskolako aurreneko ikasle taldea.



Jesu Alaben azkenetako promozioa.



Enparan kaleko eskolaren egoitza

1922an etorri ziren Azpeitira Jesusen Alabak mojak. Ordutik, irakaskuntzan aritu dira lanean, eta milaka izan dira eurekin ikasitako azpeitiarrak. 87 urteotan egindako lan guzti hori eskertu nahi izan die, orain, euren ikasle ohi eta lankideek, eta baita Azpeitiko Udalak ere: iragan abenduaren 8an bazkaria egin zuten guztiek Loiola Hotelean, eta oroigarria eman zieten mojei Julian Eizmendi alkateak eta Nerea Aldai Hezkuntza zinegotziak.

Orain 87 urteko azaroaren 8an etorri ziren Jesusen Alabak Azpeitira, egungo Done Jaque kalean dagoen Perez Arregi etxera. Bertan zabaldu zuten euren eskola, Frontoi Txikiaren hormaren kontra. Lau urte pasatu zituzten bertan, 1926an Enparan kaleko Iberotarren etxera joan ziren arte. Bertan egon zen eskola 41 urtez. Oraingo Etxe Alaiko eraikina 1967an egin zuten, eta ordutik bertan egon da Jesusen Alaben eskola.

Zortzi hamarkada urte hauetan Azpeitiko milaka umeri eman dizkie eskolak Jesusen Alabek. Hasieran, 7 urtera bitarteko umeentzat hasi ziren klaseak ematen, gero oinarritzko batxilergo arte, formazio profesionala ere eman zuten, eta baita batxilergotekniko profesionala ere. 1979an, berriz, inguruko beste kongregazioarekin batera batxilergo zentroa jarri zuten abian, Iraurgi izanearekin. 2002-2003

ikasturtea hasterako, berriz, herriko Betharram, Jesusen Alabak eta Milagrosa ikastetxeek bat egin eta ikastetxe bat sortu zuten, Iraurgi Ikastetxea. Ikastetxe horren barruan jardun dute mojek lanean oraintxe arte.

Urteen poderioz, ordea, Jesusen Alaben egoera aldatu egin da. Moja kopurua gutxitu egin da, eta irailean hiru soilik gelditzen ziren Etxe-Alaiko egoitzan. Moja horiek beste toki batzuetara bideratu ditu kongregazioak, eta horrenbestez, amaitu da euren urteetako presentzia Azpeitian.

Ehunka herritar, ikasle eta lankide ohik eman dizkie eskerrak, joan aurretik, mojei, eta agur oparoa egin diote. Hainbeste urtean Azpeitiari eta azpeitiarrei emandakoa eskertzeko aukera paregabea izan zen Loiola Hotelean egindako bazkarian.

Ludoteka zerbitzua eskainiko du San Sibestre lasterketak



Urte amaierako lasterketa herrikoia goa izatea nahi dute antolatzaileek

berrikuntzaz beteta dator aurtengo San Silbestre lasterketa. Inoiz baino herrikoia goa izateko helburuarekin, irabazleentzat diru-sari kopurua murriztu eta partaide guztien artean banatuko diren opari gehiago izango dira, esaterako, eta gizon zein emakumeek parte hartzeko aukera gehiago izan dezaten, ludoteka zerbitzua ere eskainiko du Udalak. Doan izango da zerbitzua, 4 eta 7 urte arteko umeentzat, eta 11:15etik 13:15era egongo da zabalik Iturriziki ludoteka. 1.000 partaideko muga gainditu nahi dute antolatzaileek, eta horretarako parte hartzera gonbidatu dituzte herritar guztiak.

Urtero legez, Azkoitia-Azpeitia Xeye Atletismo Taldeak, Urola Kostako Hitzak eta Azpeitiko Udalak antolatu dute aurtengo San Silbestre lasterketa, eta abenduaren 31an jokatu da, eskolarrak 10:30ean hasita, eta lasterketa nagusia, 12:00tan abiatuta. Kadete eta jubenilek 4.150 metroko ibilbidea egin beharko dute, eta gainerakoek 8.300 metrokoa.

Izena emateko aukera ezberdin ugari daude: aurretik, Internet bidez (www.herrikrossa.com), Aitzaki Kirolak eta Plaza Berri Sport dendetan, edo Hitzaren Zarautz eta Azpeitiko bulegoetan eman ahal izango da izena. Internet bidez egiten dutenak 8 euro ordaindu beharko dute, eta besteek 10 euro. Internet bidez abenduaren 29ra arte eman ahal izango da izena, eta bestela abenduaren 25era arte. Egunean bertan ere eman daiteke izena, 15 euroren truke.

Egunkariaren epaiketa salatu du Udalak



Auzipetuei elkartasuna adierazteko ekimenetan parte hartu dute ordezkari politikoek

abanduaren 15ean hasi zen Madrilen Egunkariaren epaiketa, eta egun horretan bertan egin zen elkarretaratzea Azpeitiko udaletxea aurrean. Udalean ordezkartza duten lau alderdietako ordezkariak egon ziren pankarten atzean, Egunkariako langile horiekin batera, eta beste hainbat herritarren babesarekin. Guztira 150 herritartik gora batu zen herriko plazan.

Horrez gain, abenduaren 19an Bilbon egin zen manifestazio nazionalera joateko deia ere egin zuen Udalak, eta bertara joateko autobusen gastuak bere gain hartu zituen. Guztira hiru autobus bete ziren, Azpeitiarren elkartasunaren seinale.

Udalak berriro nabarmendu nahi du Egunkariaren epaiketaren aurka dagoela eta auzipetuei babes osoa eskaini die.

Basoari begirada ezberdinak sarituak



‘Gure inguruari begirada bat’ lehiaketako irabazleak aukeratu dituzte

basoak bizi iturri. Gai horren harira ateratako argazkiak bildu ditu, aurtan, Gure Ingurumenari Begirada bat argazki lehiaketak. Begirada baikorrena Iñaki Aranburuk eman dio, Portzubentan ateratako argazki batean. Begirada ezkorrena, berriz, Jose Mari Llavori zumaiaarak, Madariagan ateratako argazki batean. Lehiaketako bi saritu izan dira hoiak, baina ez bakarrik: guztira hamabi sari eman dituzte Azpeitia eta Azkoitiako udalek elkarlanean eta Agenda 21 en barruan antolatzen duten lehiaketa honetan. Saritutako argazkiekin, gainera, egutegia egin dute aurtan ere, eta jada banatu dira.

Honakoak izan dira aurtengo saritu guztiak:

Alde positiboan:

1. sari berezia. Iñaki Aranburu (Azpeitia). Potzubenta.
- 2.a. Jon Andoni Martin (Azkoitia). Azkoitia.
- 3.a. Juan Joxe Agirre (Azpeitia). Larraskanda.
- 4.a. Lluís Llavori (Zumaia). Otarre.
- 5.a. Juan Ramon Llavori (Zumaia). Otarre.
- 6.a. Cristina Arzadun (Donostia). Azpeitia eta Azkoitia bitartean.

Alde negatiboan

1. sari berezia. Jose Mari Llavori (Zumaia). Madarixa.
- 2.a. Iñaki Aranburu (Azpeitia). Oñatzetik Aratzerrekara.
- 3.a. Juan Joxe Agirre (Azpeitia). Izarraitz.
- 4.a. Iñaki Etxenagusia (Azpeitia). Komunzero.
- 5.a. Jose Luis Lopetegi (Azpeitia). Urrestilla.
- 6.a. Valentin Garcia (Azpeitia). Oñatz bidean.

Udalak Ane Larrañaga eta Garbiñe Bereziartua zoriondu nahi ditu

Unibertsitate karrera amaierako espediente hoberenaren saria eman diote Kutxak

Kutxak ematen dituen karrera amaierako sarietatik bi azpeitiar gazteentzat izan dira. Zehazki Ane Larrañaga eta Garbiñe Bereziartuak jaso dute sari bana, ikasketa amaieran espediente hoberena izateagatik. EHUko ikasleak dira biak, eta Ane Larrañagak Medikuntza lizentziaturan lortu du espediente hoberena. Garbiñe Bereziartuak, berriz, Pedagogia lizentziaturan.

Udalak biak zoriondu nahi ditu jasotako sariarengatik, eta ikasketetan erakutsitako maila onarengatik. Egindako lan gogorrenaren saria izan dela nabarmendu du Udalak, eta etorkizun oparoa opa die bi ikasleei.

Euskararen ordenantza berria onartu du Udalbatzak

Euskararen Nazioarteko egunean eman zion hasierako onarpena Azpeitiko Udalbatzak Euskararen Ordenantza berriari. Orain lau urte onartutako aurreneko euskararen ordenantza ordezkatzeko prestatu da araudi berria, epaitegiek bertan behera utzi baitzuen 2005eko abenduaren 1ean onartutako ordenantza hura, gaztelera diskriminatzeko zuela argudiatuz.

Funtsean, orain onartutako araudi berriaren testua 2005ekoaren oso antzekoa da. Hitzaurrea aldatu da eta, horre-

kin batera, artikulatuaren barruan, lege oinarrien aipamenak txertatu zaizkie artikuluko guztiei, banan banan, eta kasu bakoitzean dagokion lege oinarria zehatz aipatuz.

Iñaki Agirreazkuenagak egin ditu ordenantza berriaren egokitzapen eta moldaketak. Euskal Herriko Unibertsitateko Administrazio Zuzenbideko katedraduna da bera, eta aurreko ordenantza erredakzioa ere berak zuzendu zuen. Egokitzapen eta moldaketa horiekin, epaitegiek aurreko ordenantza

indargabetzeko erabili dituzten argudio nagusiak (Azpeitian gaztelania baztertu egiten dela eta Udalak hizkuntza normalizazioaren esparruan arauak emateko eskumenik ez duela) bertan behera utzi direlakoan daude bai, Agirreazkuenaga eta baita Udala ere.

Orain arte aipatutakoekin batera, xedapen gehigarri berri bat ere gehitu zaio ordenantzari. Horrela, alkateari onartzen zaio, ordenantzan jasotakoaren urraketak egonez gero, zigorrak hartzeko ahalmena.

Urrezko Bikain agiridun lehen Udala

Euskaliten ziurtagiri gorena jaso du Udalak



azpeitiko Udalak Urrezko Bikain Ziurtagiria eskuratu du. EAEko esparru sozio-ekonomikoko erakundeek garatutako hizkuntza-normalkutzako prozesuek izan duten garapen-maila egiaztatzea eta aitortzea da Bikain ziurtagiriaren helburua. Eusko Jaurlaritzak sortu eta Euskalit Bikaintasunerako Euskal Fundazioak kudeatzen du. Ziurtagiriak hiru maila ditu, eta Azpeitiko Udalak goi mailakoa eskuratu du.


Euskalitekoen azterketan eta neurketan

700 eta 1.000 puntu artean lortu behar ditu erakunde batek Urrezko edo goi mailako Bikain ziurtagiria eskuratu ahal izateko; Azpeitiko Udalarik 800-849ko puntuazioa eman dio talde ebaluatzaileak. 2009an egindako neurketan oinarritzen da Udalak eskuratu duen ziurtagiria.

Bikain euskararen kalitate ziurtagiria 2007an sortu zuen Eusko Jaurlaritzak eta, batik bat, enpresa arloko erakundeak izan dira orain arte ebaluazio prozesua aurrera eramanez eta ziurtagiria lortu dutenak. Udalen mailan, ordea, Azpeitiko Udak Urrezko Bikain Ziurtagiria bereganatzea erdietsi duen aurreneko erakunde publikoa.



Ianabesa euskarazko ekonomia eta enpresa hilabetekariak jardunbide-profesionala saria eman diote Javier eta Jose Maria Bastida azpeitiarrei, Elmubas Iberica-Pien-sos Bastida enpresako fundatzaileei. Sari banaketa ekitaldia Donostiako Zientziaren Kutxagunean egin zen, eta Azpeitiko alkate Julian Eizmendi eta Merkataritza eta Industria zinegotzi Joxe Urbistondo sari banaketan izan ziren.



Gabon giro

Ekitaldiz beteta datoz 2009ko Eguberriak



egun bereziak izaten dira Gabon inguruan: etxekoekin, lagunekin, ingurukoekin egoteko garaia da, baina baita opor garaia ere. Usadio eta tradizioz beteriko hitzorduz beteta datoz, aurten ere, Gabonak, Azpeitira, baina baita oporraldi garairako ekitaldi bereziz ere.

Santo Tomasak igarota abiatuko dira, esaterako, Gazteria Sailaren ekintzak. Haur eta gazteentzat egitarau oparoa antolatu dute aurtengo Eguberrietako oporretarako: Gabon parkera bixita, esku lanak, sukaldaritza lehiaketak, urte amaierako festak... eskaintza zabala izango dute aukeran herriko haur eta gazteek urte amaiera bitartean.

Gabon bezperan, berriz, Olentzero bateratua izango da aurten ere, eta eskeko kantu eta abestiek jantziko dituzte herriko kaleak. Hori arratsaldean, eta horren ondotik jaiotza ere ibiliko da herriko kaleetan, Julian Barrenetxea eta Parrokiko abesbatzekin batera, gabonetako kanta ezagunenaren doinuak abestuz. Izan ere, musika ez da faltako aurtengo Eguberri jaietan, eta Azpeitiko Musika Bandaren eta Metal Boskotearen doinuak ere entzungai izango dira urte amaiera bitartean. Agenda guztia aldizkariaren azken orrian duzue ikusgai.

Gabon giro izango da, beraz, datozen egunetan Azpeitian. Udalak bere zorionik zintzoenak opa dizkie herritar guztiei, eta urte berri on!

Nolakoa zen Azpeitia?

Galdera horri erantzun nahi dio Azpeitiko Argazki Elkarteak. Azpeitia eta inguruak islatzen dituen argazki zaharrak bildu nahi ditu,



1908 baino lehenagokoa. Orendaundiko merenderoan.




Nikolas OTEIZA "KAITO"-k ateratako argazkia 1971ko azaroaren 27ko Milagrosa bezperan.

horretarako zuen laguntza behar du, ordea. Etxean dituzuen argazki bildumetan begiratu besterik ez duzue egin behar: dituzuen argazki zahar zein berriak onartuko dira, eta baita negatiboak eta klitxeak ere.

Udaleko Kultura sailean jasoko dituzte argazkiak, eta bertan klasifikatu. Argazki guztiak behar bezala zainduko dira, eta bere jabeari itzuliko zaizkio. Bulegoa 09:00etatik 15:00etara egongo da zabalik, udaletxeko hirugarren solairuan.

Hartu ezazu parte herriko kultur ondarea berreskuratzen. Azpeitiaren historiaren zati bat berreskuratzen ere lagunduko duzu.

agendaabendua



ABENDUA

1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30
31					



21, astelehena

SANTO TOMAS EGUNA

10:00 Izarraitz txistularien eskutik diana
10:30 Pilota Txapelketa
Tokia: Fronto Txikian
11:00 Azpeitiko Musika Bandaren kalejira
11:30 Ttuntturoak Musika eskolako soinu-joleak
12:00 XXVII. Antzerki Topaketako Sari Banaketa
Azpeitiko Udazkeneko Azoka Berezia
12:30 Txaranga eta Bertsolariak
13:00 Erraldoiak, Buruhaundiak eta Dultzainak
17:00 Izarraitz Frontoian pilota partiduak
18:00 DANTZA SUELTO TXAPELKETA
Enparantza Nagusia
Gazteen IX. Dantza Sultoko Azpeitiko txapelketa
21:00 Musika emanaldia

22, asteartea

GABONETAKO GAZTERI ESKEINTZA
Ludotekako programazioa
GABONETAKO GAZTERI ESKEINTZA
Gaztelekuko programazioa

23, asteazkena

GABONETAKO GAZTERI ESKEINTZA
Ludotekako programazioa
GABONETAKO GAZTERI ESKEINTZA
Gaztelekuko programazioa

IRAURGI IKASTETXEKOAK
JAIOZTA ERAKUSKETA
Epea: 23tik urtarrilaren 4ra

BERTAN MERKATARITZA ELKARTEA
Ekintza: Dantzaz Blai ikuskizuna
Ordua: Arratsaldeko 17:00etan
Lekua: Izarraitz Pilotalekua

24, osteguna

GABON EZKEA OLENTZERO
GABONETAKO GAZTERI ESKEINTZA
Ludotekako programazioa
GABONETAKO GAZTERI ESKEINTZA
Gaztelekuko programazioa

BERTAN MERKATARITZA ELKARTEAK
Ekintza: Gabon kanten Txapelketa
Ordua: Arratsaldeko 16:30ean
Lekua: Udaletxe ondoan dagoen parke berrian

25, ostirala

AZPEITIKO MUSIKA BANDA
KALEJIRA eta KONTZERTUA

26, larunbata

METAL BOSKOTEAREN KONTZERTUA
Gabonetako emanaldia
AZPEITIKO GABONETAKO JOLAS PARKEA
Egunak: abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra
Ordua: 16:00-20:00
Lekua: Izarraitz Pilotalekua

28, astelehena

GABONETAKO GAZTERI ESKEINTZA

Ludotekako programazioa
GABONETAKO GAZTERI ESKEINTZA
Gaztelekuko programazioa

29, asteartea

GABONETAKO GAZTERI ESKEINTZA
Ludotekako programazioa
GABONETAKO GAZTERI ESKEINTZA
Gaztelekuko programazioa

30, asteazkena

GABONETAKO GAZTERI ESKEINTZA
Ludotekako programazioa
GABONETAKO GAZTERI ESKEINTZA
Gaztelekuko programazioa

BERTAN MERKATARITZA ELKARTEAK
Ekintza: Bi Azeri estu eta larri ikuskizuna.
Ordua: Arratsaldeko 17:00etan
Lekua: Txiki Txoko ludotekan

Abenduak 14tik urtarrilak 5 bitartean BERTAN merkataritza elkartearen dendetan egiten diren erosketengatik, kotxe bat zozketatuko dugu eta boletoa partituko dira SUZUKI ALTO. "SORTEO DEL NIÑO"ko zorbakiarekin irtingo da irabazlea.

31, osteguna

AZPEITIKO MUSIKA BANDA PASAKALLEA
SAN SILBESTRE LASTERKETA
Irteera: Enparantza Nagusia
Kategoria: Benjamín, alebin, infantil, kadete, jubenilak eta helduak.
Ordua: eskolakarra 10:30ean
Helduak 12:00etan (8.300 mt)

Urtarrilak 2, larunbata

BERTAN AZPEITIKO MERKATARI ELKARTEAK
Antzerkia: Umeentzako, "Antzokiko istorioak"
Ordua: 17:00
Lekua: Betharram Aretoa

botikatzandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Abenduaren 25 eta 29an, eta urtarrilaren 5, 16, 17, 20, eta 27an.

ARANBURU. Enparantza nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Abenduaren 21ean, eta urtarrilaren 1, 2, 3, 8, 11, 12, 13, 14, 15, eta 22an.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49

Abenduaren 20, 23 eta 28an, eta urtarrilaren 6, 18, 23, 24 eta 28an.

EIZAGIRRE. Enparantza nagusia, Tel.: 943 81 12 74
Abenduaren 20, 23 eta 28an, eta urtarrilaren 6, 18, 23, 24 eta 28an.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Abenduaren 24, 26 eta 27an, eta urtarrilaren 7, 19, 25, 30 eta 31n.

